

Ordiziako Udala

2025GOIO0014

DEIALDIA

2025eko deialdia, udalerriko kirol elkarteei kirol arloko euskarazko formaziorako dirulaguntzak emateko.

LEHENENGOA. Dirulaguntzaren xedea eta baldintzak

Deialdi honen xedea da kirol eremuan euskararen presentzia areagotzea, eta horretarako, Ordiziako kirol elkarteei dirulaguntza ematea beraien arloko prestakuntza edo formakuntza euskaraz izan dadin.

BIGARRENA. Dirulaguntzaren xede diren kredituak eta aurrekontu-partida

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzetarako Udalaren 2025eko aurrekontuan finkatutako kopurua 1.800 € da eta 1 481.01.335.00.0141 2025 diru-partidatik bideratuko da.

Partida horretan jasotako diru kopurua baino handiagoa balitz eskaera, Udalak xede bererako diru-kopuru berri batzuk onetsi ahal izango ditu, baldin eta aurrekontu-eskuragarritasuna badago.

HIRUGARRENA. Dirulaguntza emateko prozedura

Dirulaguntzak lehiarik gabeko konkurrentzia prozeduraren bitartez emango dira. Ordiziako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren II. tituluko 1. atalean ezarritakoaren arabera jardungo da.

LAUGARRENA. Onuradunek dirulaguntza lortzeko bete behar dituzten baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua

Hauek dira onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak:


-Gizarte Segurantzarekiko, Ogasunarekiko eta Ordiziako Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

-Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako kasuren batean ez egotea.

-Genero-indarkeriagatiko diskriminazioan erortzeagatik administrazio-zehapen edo zehapen penalik ez izatea (dagokion zehapenean ezarritako aldian).

Hauek dira onuradunek bete beharreko baldintza espezifikoak:

-Ordizian kirol arloan euskara sustatzeko Ordiziako Udalarekin hitzarmena sinatuta



Ordiziako Udala

2025GOIO0014

izatea.

-Elkarteak antolatutako ikastaroa euskaraz izatea.

BOSGARRENA. Laguntzak emateko prozedura antolatzeko, bideratzeko eta ebazteko eskumena duten organoak

Ordiziako Udaleko Euskara Sailak bideratuko du prozedura.

Alkatetza da dirulaguntza-prozedura antolatzeko eta ebazteko organo eskuduna, egin ditzakeen eskuordetzei kalterik egin gabe.

SEIGARRENA.- Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 2025eko abenduaren 5era arte izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Eskaerak www.ordizia.eus webguneko zerbitzu telematikoen bidez aurkeztu behar dira. Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoetako Prozedura Arrunta arautzen duen 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezartzen duen eran aurkeztu ahal izango dira.

ZAZPIGARRENA.- Ebazteko eta jakinarazteko epea

Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa da, dagokion deialdia argitaratzen denetik aurrera.

ZORTZIGARRENA. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak eta informazioak

-Eskaera inprimakia behar bezala beteta.


-Euskaraz eman duten formakuntzaren deskribapen zehatza, ordu kopurua, parte hartzaile kopurua, landutako edukiak.

-Formazioaren gastua jasotzen duen faktura edo ordainagiria.

BEDERATZIGARRENA. Errekurtsoak

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko



Ordiziako Udala

2025GOIO0014

errekurtsoa aurkezteko Alkateari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertze errekurtsoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

HAMARGARRENA.- Jakinarazteko edo argitaratzeko bidea

Eskatzaileak eskabidean adierazitako tokian eta moduan egingo dira jakinarazpenak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan ondorio horietarako ezarritakoa kontuan hartuta.

Sinatzailea	Euskara Teknikaria Maria Teresa Berruet Arbelaiz
	Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAARMA06.yHWV